

# OIELEKU

Baso sorgindua

Argazkiak: LETXEZARRAGA



3,8  
Km

2,3h

Wikiloc-en  
topatuko duzu  
ibilaldi hau

GnatKonekta



## Sarbidea

Oiartzundik, GI-3631 errepidean barrena Artikutzarantz hartuta, harik eta 12,5 kilometro puntuaren inguruan errepidean eskuinetara irekitako aparkalekua topatu arte, Kausoro muinoan.

## Zailtasuna eta errekerimenduak


Ibilaldi honek ez du ageri nabarmentzeko moduko zailtasunik. Halaber, ez du ekipamendu berezirik eskatzen, mendi ibilietarako oinetako eta arropa egokiak baino ez. Komeni

da ura eta elikagai arinen bat eramatea. Halaber, hartu ahal dela telefono mugikorra aldean, ezer gertatuko balitz ere.

## Deskribapen laburra

Ibilbide osoa Oiartzungo udal mugartean igarotzen da, Aiako Harria parke naturalaren barruan, iparraldeko mendi inguruetan, Bunanagirre parean. Garai batean ikazkintzarako trazatutako baso bideetan barrena ibiliko gara, zeinak Bortzirietako mendi paleozoikoko lur granitikoetan irekiak baitira, bakarrak Gipuzkoan.

Berriro konifera sartutako sailak zeharkatuko ditugu, baita larre pribilegiatuak eta pagadi inausi bikainak ere. Eta, halaxe, Gipuzkoako paraje eder eta enigmatikoenetako batean sartuko gara; inguru horretan, lurtean sarturiko harri-zko barruti zirkular ugari daude (cromlechak edo jentilbaratzak), kondairak dioenaren arabera, garai bateko ehorzleku izandakoak.



1 de 6

Gnaturaldia  
Konekta

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ingurumena eta Oribi  
Hidraulikotasun Departamentua



ETORKIZUNA ORAIN  
Es futuro

**A**iako Harria parke naturala naturagune babestu deklaratu zuten 1995ean. Gipuzkoako ipar-ekialdeko muturrean dago, eta 6.900 hektarea pasatxo ditu. Donostialdean, Oarsoaldean eta Bidasoaldean dago, Donostiako, Hernaniko, Errenteriako, Oiartzungo eta Irungo udal mugarteetan. Zirkunskripzio osoa Kontserbazio Eremu Berezitzat hartua da, Natura 2000 sarearen barruan (bioaniztasuna kontserbatzeko Europar Batasuneko eremuen sarea). Aiako Harria mendi granitikoak orain 280 milioi urte irten zen itsaspetik, eta Euskal Herriko lehendabiziko mendi formazioetako bat dugu.



### **Ibilbidearen eta bertan topatzen diren elementu naturalen eta kulturalen deskribapena**

*Oharra: WP hizkiekin (ingeleseko waypoint-etik eratorriak) adierazten dira ibilbideko gako-puntuak, hala bidegurutze bat dagoelako, nola intereseko kokagunea delako. Eskuineko zutabeetan jaso dira kokaleku horien argazkiak eta azalpenak.*

Inguruotan, beste toki gutxitan bezala jarraitzen dute ikusgai garai bateko esplotazio eredu aztarnek, basoak mende luzez markatu dituzten horiek. Habitat berezi honek balio nabarmena du ekologiaren, paisaiaren eta kulturaren aldetik; guztia ere Aiako Harria mendiaren haitz granitikoaren silueta ikusgarria buru duela.

Kausoro (WP1) aldean dagoen aparkaleku egokitutik, errepidea gurutzatu eta eskuinetarantz abiatzen den pistari helduko diogu. Pista hori bat dator PR-GI 1006 izeneko bide homologatuarekin, zeina seinale zuri-horiz markaturik baitago (WP 2). Ibiliri ekin eta laster, iturburu hasiberri bat gurutzatuko dugu, sahas inausi zahar bat gainean duela. Zenbait estalpe korrokoil igaro ostean, konifera exotikoz sartutako hainbat lurretan barneratuko gara (larizioak, laritzak eta izei gorriak).

**K**ausoro muinoa lau haizetara zabaldua dago Munanagirre eta Kausorogaña tontorren artean, eta bi aldeetatik ere espero ez ditugun ikuspegiak eskaintzen ditu. Alde batetik, Donostia, Pasaia, Lezo, Errenteria, Oiartzun, Igeldo mendilerroa, itsasertza, Urgull eta Uliia mendiak, Jaizkibel mendilerroa... Eta, bestetik, Urumea haranaren sakonera guztia oinetan dugula, Artikutza, Sunbilla, Ezkurra, Leitza, Adarramendi-Mandoegi tontorraren luzera osoa, Hernio mendilerroa... Ikuskizun arranditsu askoa, zeina are gehiago gozatu ahalko baitugu ordokian irauten duten cromlech bikote enigmatikoaren paretik, aparkalekuaren barrenean berehalaxe ezkerretara hartuta.

### **Waypoint (WP)**



1. Irteera



2. Seinalea duen bidea hartu



# OIELEKU

Ondo definitutako bideak, hiru iturburu igaro ondoren, Gainbeltz (WP 3) mendi bizkarrera ematen du, zeina Baztela eta Elorritxoko sakanen artean altxatzen baita. Sakan horretan ez dago arbolarik eta larretarako baliatzen dute ardiek, behiek eta zaldiek, azkeneko hiru mende laurdenetan baino gehiagoan. Bertatik, egundoko ikuspegia dugu Donostia, Errenteria, Pasaia, Lezo eta itsasertza miresteke.



Ez da batere harrizkoa puntu honetan eta basoen artetik igarotzean abelburuak topatzea libre, patxada ederrean larrean eta hausnarrean. Eta ohikoak izaten dira, era berean, basurdeek uxarrean altxaturiko soropil-alfonbrak ere, gauetan elikagai bila egiten dituzten ibilietan harrotuak (sustraiak, karraskariak, zizareak, anfibioak...).



**E**nbor laburrak, lodiak eta begitsuak dituzte, argimutil itxurarekin; inausi eten horien konfigurazio bereziak nortasun eta edertasun berezia ematen dio basoari. Arbola horiek egiazko monumentuak dira: izan ere, desagertutako kultura eta bizimodu baten lekukotza jasotzen dute. Zuhaitzak altura baxu samarrean ebakiz gero, basoan ibiltzen ziren abereek jaten zituzten kimu berriak. Hala, beharrezkoa zen enborra lurretik metro pare batera ebakitzea, gutxi gorabehera. Hala, kimu berriak urrutitxo geratzen zitzaizkien abereei. Garaiera horretatik gora, adarrak irten eta loditzen-loditzen joaten ziren. Inausketa horiek behin betiko eten ostean, zuhaitzek hazten jarraitu dute, harik eta gaur egun ezaqutzen ditugun ale bikainak osatu arte.

Beste behin ere, tamaina ederreko koniferen birpopulazio batean sartuko gara –oraingo honetan, laritz pinuak bakarrik–, eta, handik pixka batera, Sainegia pagadi zoragarrian ibiliko gara, alde guztietan zabaldutako eta ehun urtetik gorako pago arbolak ditugula. Bidegurutze batera iritsi eta aurrera jarraituko dugu, beherantz ematen duen pista bati helduz. Bueltakoan, gogoratu behar dugu bidegurutze honetan aurrera egiten duen pista nagusiari jarraitu behar diogula, eskuinetarantz segitzen duena albo batera utziz (WP 4).

## Waypoint (WP)



3. Larrean, pistan jarrai

4. Pistan jarrai



# OIELEKU

**P**agoak 40 m garai izatera ere iristen dira, modu naturalean eta espazio irekietan. Kimaketa edo inausketa hainbat zuhaitz ustiatzeko garai bateko modu tradizionala da (haritzak, pagoak, lizarrak...). Zuhaitz landareak bi metro ingurura ebakitzen ziren, eta, zuzendutako hainbat ebakiren bidez, kimu berriak ematen zituzten hainbat garaieratan, zeinak batez ere egur ikatza egiteko eta ontzigintzarako pieza kurbatuak eskuratzeko baliatzen baitziren, betiere arbolari zutik eutsiz eta, ondorioz, fruituak animalien eskura ipiniz.

Mende luzeetan, Oiartzun haraneko biztanleek gogotik aprobe txatu dituzte baso masa autoktono paregabe hori eta inguruko beste hainbat, bai zuzenean –egur ikatza egiteko egurra ebakiz–, bai zeharka –abelburuak elikatuz haien fruituekin–. Bitarteko horiek pisu ekonomiko handia izan zuten XX. mendearen lehen herenera arte. Pagadian sartu eta 250 m eskasera, aldapatxo bati ekin eta gutxira,

eskuinetara ematen duen bide bat utzi eta aurrera jarraituko dugu. Edonola ere, gogoan izan behar dugu puntu hori buelta hartzeko garaian (WP 5).

Tartean-tartean, bidea erabat ezkutaturik izango dugu, orbela lodi dela. Oparoaldia eta sosegua transmititzen dizkigun paisaia zeharkatuz, ikatz plataforma belztuak ikusiko ditugu, milaka eta milaka urteko artisauek jardueraren lekuko itzaliak. Eta, halaxe, Oieleku mendi bizkarrera iritsiko gara – Oianleku– (WP 6).


Arbola inausien multzo ikusgarri bat ageri zaigu hemen, oinetan ikatz plataformen hondar ugarirekin. Ehun urtetik gorako zuhaitz ikusgarri horiek ederki asko erakusten dute, gaur egun ere, zer-nolako oreka izan duten naturarekin abeltzainek, ikazkinek, olagizonek, egurgileek, artzainek eta beste hainbatek mende luzeetan zehar.

Ingurumari honek desagerturiko mundu bat oroitarazten du, eta altxor itzela da, ekologiaren, paisaiaren eta kulturaren aldetik duen balioagatik.

## Waypoint (WP)



5. Bidegurutzean, ezkerretik. Bueltakoan, eskuinera



6. Pagadi mugarrotua



# OIELEKU

Paisaia harrigarri hau goroldioz eta belarkara laburrez tapizaturik ageri zaigu, eta mahaiak eta iturri bat topatuko ditugu (edateko ur bihurtu gabeko iturburua). Halaber, aterpe bezala erabiltzen den txabola bat ere badu. Inguru honetan, bereizgarriak dira, era berean, ondoak eta perretxikoak, baita garai bateko adarrak apaintzen dituzten supizteko ardagaia ere.

Edota gibeldurdin preziatuak eta boletus estimatuak.

**C**romlechak lurrian sarturiko harri zirkuluak dira. Baratzak, jentil baratzak edo mairu baratzak deitu izan dira. Erretze ehorzlekuak dira, abeltzaintzan jarduten zuten komunitateek eraikiak, hasi Brontze Aroaren amaieratik eta Burdin Aroan zehar (gure aroaren aurreko lehen milurtekoan, alegia). Barrualdean, hildakoak erretzetik sorturiko errautsak daude gorderik. Barrutiak lurraren arrasean edo harriz eta lurrez beteta izan ohi dituzte. Nahiz eta ohikoa izan isolaturik agertzea, oro har, hainbat eratako multzoak osatu izan dituzte (hainbat neurri eta eraketatakoak), eta gerta liteke zirkuluak berezita, elkarren segidan edo binaka-binaka elkarri loturik agertzea. Mitologiak dioenez, jentilek edo fedegabeek sortuak dira. Berebiziko indarra zuten erraldoi arraza batekoak ziren jentilak, eta mendietan bizi ziren, kristauak iritsi aurretik. Oiartzun haranean esaten zutenenez, Aiako Harrien zuloguneetan bizi ziren intxisu edo iratxo txiki bihurriek eraikiak dira ehorzketarako.

Aurreraxeago joanda, pagaditik irtenez, eremu ireki batean irtengo gara –aldian–aldian garoak estalita egon ohi da–. Hondoan, Basateko Kaskoa izeneko gainera igotzeko malda baino lehentxeago, inolako zailtasunik gabe identifikatuko dugu Oielekuko cromlechen multzo enigmatiko eta irakurtezina, Oieleku Iparra izenarekin katalogatua: zortzi hileta zirkuluk osatzen dute, eta haietatik seik binaka-binaka dauzkate loturik egiturak (WP 7).

Megalito horiek eta Oiartzun haraneko inguruetan identifikatutako beste berrogeita hamar inguruk osatzen dute Oiartzungo Estazio Megalitikoa, zeina ondasun kultural gisa kalifikatua baita, monumentu multzo kategoriarekin.

Bereziki ikusgarria da garai bateko aztarna horien ikuspegi paregabea, hondoan Aiako Harrien gailur granitikoaren siluetan nahasezina dugula; are ikusgarriagoa, haien arroketan ahabia egiten duten sai arreen saldoen bat ikusteko aukera baldin badugu.

Erroilbide, Txurumuru eta Irumugarrieta tontorrek –gure kokalekutik ikusten ditugun posiziotik– nolabaiteko misterio kutsu bat sortzen dute, eta beste garai batzuetara eramaten gaituzte bidaian, gizakiak eta



## Waypoint (WP)



7. Jentillarria



# OIELEKU

naturak batasun zatiezina osatzen zuten denboretara edo.

Gozamen horretan murgildurik, abiapuntura itzuliko gara. Berrero ere aterpean, aurretik abiatzen den pistari helduko diogu, eta berehalaxe irtengo gara pagaditik. Handik lasterrera iturri batera iritsiko gara (WP 8) –tratatu gabeko iturburuko ura–, eta, pareko bidegurutzean, eskuinetara hartuko dugu (WP 9). Merezi du azken begiratu bat ematea ikuspegiari: Aiako Harriak, Aritxulegi, Errenga, Bianditz, Munanier.

Aurrera segituko dugu lur irekian. Pistak bira txiki bat egiten du, eta

gaintxo bat inguratzen du, zeinak bi cromlech egitura baititu tontorrean, erabat irisgarriak, Oieleku Hegoa izenarekin katalogatuak.

Bihurgune hori igaro orduko, pago inausi baten parean, aurrez aurre topo egingo dugu tximista batek husturiko pago ipurdi batekin: babesleku ederra hainbat fauna espezierentzat. Pista utzi eta parean eskuinetara hartuz, albotik igarotzen denari helduko diogu (WP 10). Etorri garen pistatik barrena 80 m inguru behera egin, eta, aurrera jarraituz, lehen igaro ditugun puntu guzti-guztiak gozatuko ditugu berrero ere. Eta halaxe helduko gara abiapuntura.



## Waypoint (WP)



8. Iturria



9. Bidegurutzean, eskuinetik



10. Bidegurutzean, eskuinera, pista utzita

11. Bueltaoan, aurrera, ezkerretik

12. Helmuga

*Gogoratu mendia, basoa eta hondartzazaindu behar dituzula, errespetatu animalia eta landareak eta eraman sortutako zaborra etxera bueltan.*



[gipuzkoa.eus/eu/web/ingurumena/gnaturaldia/konekta](http://gipuzkoa.eus/eu/web/ingurumena/gnaturaldia/konekta)

6 de 6

Gnaturaldia  
konekta

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ingurumena eta Oribi  
Hidraulikotasun Departamentua



ETORKIZUNA ORAIN  
Es futuro